

'Biziletra' maratoia antolatu dute, irakurzaletasuna sustatzeko

Pertsona batek triziklo bateko pedalei eragiten dien artean, beste batek bozgora irakurriko du.

ENDIKA URLEZAGA

Eusko Jaurlaritzak 'Biziletra' lehiaketa berritzailea antolatu du, irakurzaletasuna sustatzeko. Liburutegiak kalera ateratzeko eta irakurzaletasuna sustatzeko herrien arteko maratoia da 'Biziletra'. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 30 liburutegik parte hartuko dute proiektuan. Eskualdeko ordezkariak Bermeoko Barandiaran eta Gernika Lumoko Udal liburutegiak izango dira.

'Biziletra'-n parte hartuko dutenek triziklo batean zeharkatuko dituzte kaleak, bozgora irakurtzen duten bitartean. Trizikloan pertsona bi joango dira. Horrela, batek pedalei eragiten dien bitartean, besteak irakurri egin beharko du. Irakurri ezean ezingo diete pedalei eragin eta, horrenbestez, txirrinduak ez du aurrera egingo.

Bermeora bihar iritsiko da maratoia eta Gernika-Lumon egun bi beranduago, hilaren 5ean. Bermeon 10:00etan jarri dute hitzordua, Lameran. Gernika-Lumon ere ordu berean hasiko dira pedalei eragiten, kasu horretan udaletxe aurrean dagoen Foru plazatik.

Sariak banatuko dituzte

Lehiaketan jardungo diren liburutegi guztiek maratoia bukatutakoan, herri irabazleak zeintzuk diren zehaztuko dute antolatzaileek. Garaileak aukeratzerako orduan, liburutegiek duten bazkide kopurua, 'Biziletran' parte hartu duten pertsona kopurua eta herri bakoitzean egindako kilometro kopurua izango dituzte kontuan.

Puntuazio altuena lortzen duten bi liburutegiek irakurzaletasuna sustatzeko 2.500 euroko saria jasoko dute.

'Biziletra'-ko trizikloan joan nahi dutenek arestian aipatutako liburutegi bietan eman beharko dute izena.